

HERNANI kronika

2004 urtea
Iraileak 17
Ostirala
Alea: 1233
www.kronika.net

'Sagastiyan' babes ofizialeko 365 etxebizitza egiteko plan partzialari hasierako onarpena eman dio Udalak

Gobernu Batzarra: Pasa den astean Hirigintza Batzordetik pasa zen gaia atzo Gobernu Batzarrean onartu zen.

GOBERNU Batzarra bildu zen atzo eta hainbat punturen artean Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaie-tako Sailak aurkeztutako plan partzialari, hasierako onarpena eman zitzzion. Sagastiyan egitekoak dituzten babes ofizialeko 365 etxebizitzen inguruko plan partziala da. Oraindik ere zehatz zenbat bloke izango diren ez badakite ere, egingo diren etxeek hartuko duten eremua izango da Sagastiya baseria eta Iturrimendi baseriaren arteko. Udalak adierazi duenez espero da urbanizatzeko lanak urte baten buruan hastea eta etxebizitzak 2007 bukaerarako edo 2008 hasierarako bukatuta egotea. Bitarte horretan etxebizitza hauek eskuratzeko zozketak ere egingo dira.

Etxe kopuru zehatza jakin-go da eraikuntza proiektua egiten denean eta espero da, hemendik gutxira Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako ordezkaria Hernanira etortzea etxebizitza hauei buruzko azalpenak ematera.

Hernaniko Udalak eska-tuta, Eusko Jaurlaritzak lehenengo trenbide zaharraren ibilbidearen diseinua mantentzea onartu du. Hasierako planoan hortik errempide bat egitea aurreikusten zen, baina, Udalak adierazi du bere garaian inbertsio haundia ekarri zuela bide hori egiteak eta Eusko Jaurlaritzak onartu egin du oinezkoentzako bidea mantentzea. Ibilbide horri bidegorri bat gehituko zaio.

Aitor zinean etxeak
Gobernu Batzarrean onartu zen beste puntuatko bat Aitor

Oinezkoentzat ibilbidea: Eusko Jaurlaritzak aintzineko trenbidearen ibilbidearen diseinua mantentzea onartu du.

2008rako bukatuta: 365 etxebizitzak 2007 amaierarako edota 2008 hasierarako bukatuta ego-tea espero du Jaurlaritzak.



Sagastiyan ditu egitekoak Babes ofizialeko etxeak Eusko Jaurlaritzak.

Zine barruko berrikuntza lanak egiteko plan berezia izan zen, zinea zen horretan 40 etxebizitza egitea ekarriko duena. Orain Diputazioak onartu beharko du plan berezia, proiektuak aurkeztu ahal izateko.

Beste hainbat gai

Gobernu Batzarrean Atsegindagi plazako urbanizazio proiektua behin betiko onartu da. Proiektua erakusketa jarri dute eta Udalak adierazi du ez dela inolako alegaziorik izan. Hernanirako Goi Mailako Inmigracio Teknikaria kontratatzeko INEMi egingo zaion dirulaguntza eskaerari buruz ere hitz egin zuten atzo. Parro-kiko portada berritzeko lizen-tzia ere onartu zuten.

Gainerantzko puntuak, Akarregin hiru pabeloi egiteko eskaerak izan ziren eta baita hainbat negozio irekitzeko eskaerak ere. □

IZARTU II

1.580.299 euroko subertzioa hainbat obra egiteko

EUSKO Jaurlaritzak, Hernaniko hainbat obra subenzionatuko ditu, Izartu II programaren bitartez. Guztira, emandako dirulaguntza 1.580.299 eurotakoa da. Izartu II gainbehera etorritako hiri zonaldeak berritzeko programa da eta Hernaniko Udalak hainbat obra subenzionatzeko eskaria egin zuen. Programa honetan onartzan diren obrak aurrekontuaren % 50a arte subenzionatu ditzake, Izartu IIaren bidez. Eusko Jaurlaritzak Hernanin diruz lagunduko dituen lanak lau dira:

1) Bidegorri sarea.

- 2) 'La Cumbre' auzoko zerbitzu sareen reurbanizazio eta berrikuntzako obrak.
- 3) Elizatxo auzoko zerbitzu sareen reurbanizazio eta berrikuntzako obrak.
- 4) Ezinduei bidea errazteko plana.

Dirulaguntza 5 zatitan jasoko du Hernaniko Udalak. Aurten hasi eta urtero 2008ra arte banatuko du Eusko Jaurlaritzak subertzioa. Aurten jaso beharreko dirulaguntza 14.498 eurokoa da eta 2005ean jaso beharreko, 248.847 euroko. □

Kirol Elkarteak Batzar Orokorra deitu du bihar goizerako

HERNANIKO Kirol Elkarteak Asanblada Orokorra deitu du bihar goizerako. Aurreneko dealdia goizeko 10:00etan izango da, bigarrena 10:15etan eta hirugarrena 10:30etan. Batzar Orokorra gai hauen bueltan izango da: Lehendakariaren aurkezpena, aurreko Batzarreko akta onartzea, 2003-2004ko Kirol Memoria, 2004-2005eko aurrekontua onartzea, Kirol Elkartearen oraina eta etorkizunaren inguruko informea, Lehendakariaren eta Zuzendaritzaren dimisioa, hauteskundeetarako egutegia zehaztea. Batzarra Sandiusterrin izango da. □

MENDIRIZ MENDI

Erniora irteera gaztetxoentzat

MENDIRIZ Mendik irteera antolatu du gaztetxoentzat, irailaren 26rako. Irteera Ernioara izango da eta izena eman nahi duenak irailaren 24ra arte du epea. Irteera joateko, gaztetxoek 2 euro ordaindu beharko dituzte eta helduek 4 euro. Izena emateko Iturregi plazako bulegora joan behar da astelehen, ostegun eta ostraletan, 20:00etatik 21:00etara. □

Txu-txu trena gaur Berriakek antolatuta

BERRIAK elkartek txu-txu tre-na jarriko du gaur eta Hernanitik barrena buelta bat emateko aukera izango dute nahi duten haur eta gazteek. Trena arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara ibiliko da eta irteera plazatik izango du. Egingo duen ibilbidea da: Plazatik Kardaberaren behera, Zinkoenea, Txirrita, Urbia, Latsunbe, Zinkoenea berriz ere eta Kale Nagusian gora berriro ere Plazara. □

HERNANIKO UDAL EUSKALTEGIA ZORIONAK!
HABeren 1. edo 2. maila, EGA agiria edo hizkuntz eskakizunen bat atertu duzuen guzioi!
04-05 IKASTURTERAKO MATRIKULALDIA ZABALIK irailaren 6tik 24ra
Diru-laguntzak ere badauzkagu.
Galde ezazu euskaltegian (Karobia 63an, anbulatorio zaharrean!)
☎ 943 331896
e-mail: euskaltegi@hernani.net
Ordutegia: 9:00-13:00 / 16:00-19:00

HERNANIKO UDALA

URGASKA, S.L.
Gas instalakuntza Material salmenta
* Asistentzia teknikoa, gas eta berogintzan.
* Gas propano, butano eta naturala: mantenua
* Iturgintza
Aristizabal 9 Behea Tel.: 943 33 37 40

ANTZIOLA TABERNA
ostiraletan, 22:30etan
"Mus azkarra"
SARIAK:
1.) 2 urdaiazpiko edo 12 txuleta + 2 langostino kaja + 2 txapain
2.) 6 kilo kostila + 2 langostino kaja + 2 boteila ardo
3.) 2 koneju + 2 txapain + 2 ardo bot.
4.) 2 txapain bot. + 2 ardo bot.
Inskripzioa: 14 € bikoteko
ERREGULARITATE SARIA 200 € hilabeteko puntuaziorik altuenari
ANTZIOLA TABERNA
Antziola auzoa 1- 943 55 54 99

musika eskola DOINU-ZALE
KARABEL AUZOA, 4 • behe ezkerra
☎ 943 33 12 33 - 20120 HERNANI
Musikaren lenguia
Pianoa
Akordeoia
Pandereta
Bateria Modernoa
Tronpetta
Triki-tixa
Kitarra
Abesbatza
Armonia
Matrikula ZABALIK:
IRAILAREN 6tik 17ra. Arratsaldetan, 16:00etatik 20:00etara.
HELDUENTZAKO IKASKETA BEREZIAK ~ TALDE TXIKIAK ~ MUSIKA LENGUIA 4 URTELIK

Gorka Setienek eskuz pintatutako diapositibak Goiz Argiko erakusketan

GORKA Setienek egindako lanak Goiz Argi Tabernako paretan daude zintzilik. Eskuz margotutako diapositibak dira eta paper fotografikora errebelatutakoak. Lanak salgai daude eta formatu haundiagoan nahi dituenak ere enkargatu ditzake.

Gorka Setienen hitzetan lan hauek "intenzioa eta kausalitatearen arteko dibertimendu bat" dira. Teknika hau berak garatutakoa da, duela 7 bat urte haurrekin diapositibak margotzen zebilenean hasi zuena. Gorka Setienek dionez teknika hau esperimentatzeko aukera izan du Errapia artistak tailerrak Zikuñagan duen lokalari esker, Zikuzulo tailerrari esker. □



Diapositibak paper fotografikora digitalki errebelatzen dira.

Bertso Eskolak kurtso berria hasiko du gaur

■ Arratsaldeko 18:00etan bilduko dira Biteriko plazan kurtso berriaz hitz egiteko.

IRAULIO Pantalone Bertso Eskolak kurtsoa hasiko du gaur eta arratsaldeko 18:00etan egin dute zita Biteriko plazan. Asmoa da aurkezpena egitea eta kurtso berriaz hitz egitea. Ez dago adin mugarik eta Bertso Eskolak jendea animatu nahi du, "talde giro ona delako Bertso Eskola honetako ezau-garrietako bat" diote.

Hizkuntzarekin jolasean
Hizkuntzarekin jolastea eta

"Asmoa da, hizkuntzarekin jolastea, pixkanaka kantuan ikastea, arrazoiketa lantzea eta ondo pasatzea"

pixkanaka kantuan ikastea da, Bertso Eskolako irakasleen hitzetan, kurtsoan zehar egin dena. Hizkuntza eta arra-

zoiketa lantzea, eta ideiak garatzea ere badira kurtso honetarako asmoak.

Aktibitate ugari
Bertso Eskolan, klaseetaz gain, beste eskoletakoekin elkartzen dira, afariak egiten dituzte, saioak ikustera joaten dira, besteak beste. Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan ere parte hartu zuten iaz eta esan beharra dago Hernanikoak zirela txapelketako gehienak. □

JASOTA BEZALA

Latsunbe-Antziola, guztiontzako lotura bat

Erabateko adostasunak ez ditut inoiz gustuko izan, herri totalitarioen berezkoak direla uste dut eta. Are gehiago, desadostasunak oso aberasgarriak direla deritzot. Laura Etxezarreta andreak bidali-tako gutunaren bidez, ordea, bere desadostasuna azaldu beharrean, gure herrian eginiko txapuza bat zuritu nahi duela argi dago....

Latsunbe eta Antziola lotzen dituen autopista aldatzeko era-bakia ez zen izan egungo gobernur taldearen kapritxo bat, zenbait arrazoik eragin baitzuten: bide azkar hau ez egiteko eskatzeako berta-ko bizilagunek bidalitako 1.300 si-nadurek; sen onak eta ingurua aintzinean bezala-ez dakit zuk ezagu-tu ote zenuen-mantentzeko korpo-ratioak zuen nahiak, besteak beste.

Oinezkoentzako eginiko bide bat ezin da bide azkar bilakatu. Sentsibilitate pittin bat duten herri eta udalerri garatuok, hain

zuzen ere, lehentasuna ematen diegu oinezkoentzako pasealeku eta bidegorriei. Hildo hone-tatik jarraituz, duela zenbait hilabete enpresa batek eginiko iker-aketak zera zioen: Hernanin kilo-metro bat baino gutxiagoko joan-etorriak trafiko osoaren % 35 dira, kotxea benetan behar gabe erabiltzen dugula esan nahi du honek. Gu ez gaude kotxea ez erabiltzearen alde, baizik eta ko-txe zentzuz erabiltzearen alde.

Bidearen diseinu berria dela eta, Laura Etxezarreta andreak Udalerriko etxetik ateria eta bere etxera sartu ahal izango da kotxez inolako arazorik gabe. Baliteke min-utu bat erabili beharrean, minutu bat eta hamar segundo behar izatea, baina iritsi, iritsiko da. Diseinu berriari esker, herri osoa zeharkatuko duen sare bateko lehenengo bidegorria egin dugu. Diseinu berriari esker, kutsadura akustikoa eta bestelakoa ez area-gotzea ere lortu dugu.

Bukatuz joateko, kale honen antolaketa urriaren amaieran bukatuko dugu. Hala ere, inguruko lursailetan -jabeek saldu zituztenak proiektua egin ahal izateko, hain zuen ere- egindako txapuza kon-pontzeko denbora eta diru gehiago beharko dugu. Aurreko kor-porazioak idatziz zein ez hartutako konpromisoei aurre egin behar diegu guk, baina argi gera dadila gu ez garela horien erantzule.

Herriaren beharrak betetzea eskatzen dio Laura Etxezarreta andreak Udalerriko etxetik ateria eta bere etxera sartu ahal izango da kotxez inolako arazorik gabe. Baliteke min-utu bat erabili beharrean, minutu bat eta hamar segundo behar izatea, baina iritsi, iritsiko da. Diseinu berriari esker, herri osoa zeharkatuko duen sare bateko lehenengo bidegorria egin dugu.

Obrak bukatutakoan, zure kotxez uztera eta paseo bat ema-tera animatzen zaitut, ikusiko duzu eta zein pasealeku dotorea egin dugun hiritar guztiontzako.

Andoni Amonarrai
Zerbitzu Publikoetako
Zinegotzia

Hernaniko Etxerat-ek Donostiako enkarteladara joateko deia

ENKARTELADA dago deitua gaur Donostian, *Euskal Preso eta iheslari politikoak etxean nahi ditugu* lemarekin. Herna-

niko Etxerat elkarrekin elkarrekin die herniarrei enkarteladara azaltzeko. Gaur, 20:00etan Konstituzio Plazan. □

Elur Txori elkartea itxita egongo da astelehenetik aurrera, obrak direla-eta

ELUR Txori elkartea obrak hastekoak ditu sukaldean eta elkartea itxita egongo da datorren astelhenena, irailaren 20tik aurrera.

Hiru bat aste iraungo dute

obrek, arduradunek Kronikari esan diotenez. Bitarte horretan, Elur Txoriko bazkideek herriko beste elkartea batzuetara joateko aukera izango dute. □

Hernaniko pelotarieiek Gipuzkoako txapelketa hasiko dute gaur

HERNANIKO pelotarieiek gaur hasiko dute denboraldi berria, Gipuzkoako Txapelketa-rekin. CD Hernaniren ize-nean 34 pelotari ariko dira Gipuzkoako Txapelketan eta parte hartuko duten modalitateak dira: eskuz kadete, jubenil eta senior mailan; paleta goman, jubenil mailan eta erremontean, senior mailan. Iaz sari asko lortu zituzten herniariek pelotariek eta aurten ere denboraldi ona egiteko asmoa dute. □

Partiduak
Gaur, 18:30etan Hernanin Ezeiza-Gorrotxategi/Gazteleku
Gaur, 20:15etan Eibarren Eibar/Garmendia-Salaberria
Gaur, 20:30etan Zumarragan Beloki/Gaskon-San Sebastian
Larunbatean, 16:00etan Hernanin Fdez de Gorostiza-Ramos/Elordi Ojuel/Txapagain Arrieta-Zurutuza/San Esteban Alvarez/Batzokiko
Igandean, 11:00etan Zumaian Zumaiako/Zabala-Huizi

ASTIGARRAGAKO KULTUR ETXEA

Dantza afrobrasildarra, bideoa, literatur ikastaroak eta abar luze bat

ASTIGARRAGAKO kultur etxeak ikastaro ezberdinak jarri ditu aukeran, izena eman nahi duenarentzat. Ikastaroetan izena emateko Astigarragako kultur etxera jo behar da edota telefono honetara deitu: 943-335064.

Ikastaro aukera zabala dago: eskulanak (bolilloak, gurutze puntu, kristala grabatzea eta eskulanak mar-

gotzea), egur-taila, altzariak berritzea, bideo tailerra, Qi Gong, dantza garaikidea, dantza afrobrasildarra, haurrentzako tailerra, haurrentzako buztina eta literatur tailerra (euskeraz eta erderaz).

Ikastaro gehienak urritik aurrera hasiko dira eta urte osoa irauten dute. Literatur tailerra, ordea, hilabetean be-hin izango da. □

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103
- Alkoholiko anonimo: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Gomez Justel
Kale Nagusia 14
☎ 943 554892
- Gauiez: Atxa-Orbea
Lasarte. Hipodromo 6
☎ 943 363549

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berte-brala, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42) Pisua salgai Zikuñagan. 70 m2 eta kampora begira; erreformak egin berri ditu eta bizitzera sartzeko moduan dago. Interesatuek deitu: 653 73 79 90

Etxeko lanak egiteko eta haurrak zaintzeko pertsona behar da. Goizetan egingo luke lana. Deitu: 689 144 881

HERNANI HIZKUNTZAK

(Gure Ingelesetxea)
ZORIONAK guztiontzat Advanced eta First azterketak gainditzeagatik.

DATORREN IKASTURTERAKO Matrikulazabalik

Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08 - KALE NAGUSIA 41, 1